



**ekhilur**

**INDICE DE EFICIENCIA SOCIAL  
EKHILUR S. COOP.**

## Entitateak sailkatzeko irizpide etiko-sozialak.

Ondoko hauek ezin izanen dira entitate bazkideak izan:

1. Epai irmo baten bidez diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galtzera kondenatuak izan direnak, edo prebarikazio, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoen bidegabeko erabilera, eraginaren trafiko, iruzur, legez kanpoko ordainarazpen edo hirigintzako delituengatik.
2. Borondatezko konkurtsoaren deklarazioa eskatu dutenak, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratuak izan direnak, konkurtsoan deklaratuak daudenak, non eta konkurtso horretan hitzarmen baten eraginkortasuna lortu ez duten, esku-hartze judizialaren pean dauden edo Konkurtso Legearen arabera desgaiatuak izan diren konkurtsoaren kalifikazio-epaian finkatutako desgaiakuntza-aldia amaitu gabe izateagatik.
3. Autonomia-erkidegoetako zerga-betebeharrak, Estatuko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez dituztenak. Zorren ordainketa egunean dagoela ulertuko da, baldin eta zorrak geroraturata edo zatikatuta badaude edo itzultzeko ebazpena inpugnatzean etetea erabaki bada.
4. Egoitza fiskala paradisu fiskaltzat kalifikatutako herrialde edo lurralde batean dutenak.

## Irizpide etiko-sozialen araberako sailkapena (Gizarte Eraginkortasunaren Indizea = GEI)

### Irizpideak:

#### 1. Kooperatiba abian jartzeko eta garatzeko konpromiso-maila:

- a. 2 urte baino gehiago bazkide diren entitateak eta bazkide laguntzaileak badira. (3 puntu)
- b. Bazkidetuta urtebete baino gehiago daramaten entitateak eta bazkide laguntzaileak badira. (2 puntu)
- c. Bazkidetuta 6 hilabete baino gehiago daramatzaten entitateak. (1 puntu)

#### 2. Ekonomia sozial eta solidarioarekiko konpromiso-maila:

- a. REAS Euskadi, REAS Navarra edo Olatukoop-eko partaideak (1 puntu)

#### 3. Finantza etikoekiko konpromisoa:

- a. Fiare-n kontua dauka eta Fiare-n bazkidea da (3 puntu).
- b. Fiare-n kontua dauka edo Koop57ko bazkidea da (2 puntu).
- c. Triodos-en kontua dauka (1 puntu).



#### 4. Hizkuntzarekiko konpromisoa:

- a. Bai Euskarari agiria (2 puntu)
- b. Arreta euskaraz / gaztelaniaz (1 puntu)

#### 5. Enpresaren kategoria, jarduera eremuaren arabera.

- a. Egoitza Euskadin edo Nafarroan duten enpresak eta frankiziarik gabeak edo talde batekoak. Fakturazioaren %90 baino gehiago Euskadin edo Nafarroan. (25 puntu)
- b. Enpresa talde batekoak ez diren enpresak. Fakturazioaren %90 baino gehiago Euskadin edo Nafarroan. (20 puntu)
- c. Egoitza Euskadin edo Nafarroan duten enpresak. Fakturazioaren %90 baino gutxiago Euskadin edo Nafarroan. (2 puntu)
- d. %90etik beherako fakturazioa duten enpresak Euskadin edo Nafarroan. (1 puntu).

#### 6. Enpresa motaren araberako kategoria.

- a. Kooperatiba edo elkarte (2 puntu)
- b. Autonomia (1 puntu)

#### 7. Irabazi asmoa izan ala ez.

- a. Irabazi-asmorik gabea (1 puntu)

#### 8. Langile kopurua.

- a. 10 baino gutxiago (2 puntu)
- b. 10 eta 50 artean (1 puntu)

#### 9. Energia berriztagarriaren kontsumoa.

- a. GoiEner edo E+P bidez (2 puntu)
- b. Beste enpresa baten bidez (puntu 1)

#### 10. Genero-diskriminazio positiboa.

- a. Entitateko lehendakaria edo kudeatzailea emakumea da (2 puntu).
- b. Administrazio-kontseiluko edo zuzendaritza-batzordeko parekotasuna (1 puntu)



## Gizarte eraginkortasunaren kalifikazioa

Aplikatu beharreko puntuen batura	GEIren klasifikazioa	Deskanbio tasa
35 punto edo gehiago	A	0,5%
30 puntotik 34ra	B	1%
25 puntotik 29ra	C	1,5%
20 puntotik 24ra	D	2%
15 puntotik 19ra	E	5%
14 punto edo gutxiago	F	10%

### Betetze mailaren kontrola.

GEI-a 6 hilean behin berrikusiko da, enpresa interesdunak hala eskatzen badu, eta urtean behin Ekhilurrek.

